

## V. ERANSKINA Ikasleentzako fitxa

### SARRERA:

Ingurumenari dagokionez, **klimaren aldaketa** erronka garrantzitsua da, gaur egungo gizarteak aurrez aurre duena. Hala ere, zein dira fenomeno honen arrazoiak? Arrazoi nagusia da **gero eta CO<sub>2</sub> gehiago** igortzen ari garela atmosferara. Gas honek berotegi efektua eragiten du. Hainbat esparru ditugu igorpen hauen sorburu: garraioa, industria, etxea (berogailu, eta argindarra...), etab.

Hiritarrok ere igorpen hauen ardura dugu, energia iturriak kontsumitzeak (argindarra, berogailua, etab) berotegi efektuko gasak igortzen baititu.

Gaur egun, energia munduaren motorra denez, sektore askok erabiltzen dute: garraioak, industriak, nekazaritzak, zerbitzuek (merkataritzak, ostalaritzak,...), eta etxebizitzak. Azken urteotan, etxebizitzan kontsumitzen den energia igotzen ari da (etxetresna elektriko, berogailu, eta abarreak). Hori dela eta, hiritarrok ere klima aldaketa moteltzen laguntzen ahal dugu, eguneroko ohitura egokiagoak hartuz.

Ikastetxeetako zerbitzuek ere energia kontsumitzen dute: berogailuak, argindarrak, ordenagailuek...

Lan honen xedea da **ikastetxearen ezaugarri konstruktiboak ezagutzeko aukera ematea**, ezaugarri hauek ikastetxeak erabiltzen duen energiaren eraginkortasuna baldintzatzen baitute. Ikastetxearen ezaugarrien gaineko diagnosis abiapuntu harturik, ikastetxeak aiseago hartuko ditu neurriak energia kontsumo eraginkorragoa lortzeko.

### LANAREN DESKRIPZIOA:

- Ikastetxearen **ezaugarri fisikoak** ezagutzea, energia kontsumoari lotuak.
  - **Energiaren aldetik, ikastetxe eraginkorragoa izateko neurriak** proposatzea.
-

**TALDEA:**

**DATA:**

**JARDUERA:**

- Ikastetxearen **ezaugarri fisikoak:**

<b>Klima</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>Eraikina kokatuta dagoen lurraldean haize gogorrek jotzen dute?</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>Batez besteko tenperatura lurraldean</li></ul>	Negua: Uda:
Eraikina kokatuta dagoen partzelaren <b>azalera:</b>		
Eraikinaren <b>azalera</b>		
<b>Orientazioa (I, H, E, M):</b>	Eraikina:	
	Ikasgelak:	
	Irakasleen gela eta bulegoak:	
	Komunak:	
	Liburutegia:	
	Ordenagailu gela:	
	Laborategiak:	
Jantokia:		
Nora begira daude ate nagusiak eta leiho handienak?		
Hegoaldera begira dauden geletan (beirate nagusietan) berotegi efektua aprobetxatzen da?		
<b>Leihoak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>Leiho guztiak tamaina berekoak dira?</li><li>Tamaina desberdinekoak izatekotan, nora begira daude leiho handienak?</li><li>Nora begira daude leiho txikienak?</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>Leihoek kristal bikoitza dute?</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>Isolatzeko sistemarik erabiltzen da (burleteak...) tenperatura galerak saihesteko?</li></ul>	
<b>Kolorea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>Teilatua:</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>Aurrealdea:</li></ul>	
<b>Beste espazio batzuk</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>Patioak:</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>Barneko esparruak:</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>Zuhaiztiak:</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>Beiratez estalitako espazioak (berotegiak):</li></ul>	
	<ul style="list-style-type: none"><li>Bestelakoak</li></ul>	

